


**ITSASOA.** Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 3-4ko indarrarekin. Itsaskirria edo itsaskia eragingo du. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 metroko olatuak altxatuko ditu, egunaren amaieran 2 metrokoak.



**BIHAR.** Hobekuntza nabarituko dugu, baina kasgar antzean jarraituko du. Mendebaldeko haizea nahasia suabe, baina fresko. Giro bustia, eta euri zarastak noiznahi, arin samarrak izanda ere. Antizikloia modu onean kokatu ezinean, eta gurean eguraldia jaso ezinean. Kostaldean egongo da txarrena, baina hegoaldean ere ziertzoak giro petrala eragingo du. Hobetze bidean, halere, kosta ahala kosta.

# Ildo beretik, apur bat hobera joz

**EGURALDIA GAUR.** Joxe LANDA. Kasgar eta petral jarraituko du eguraldiak. Zaparrada ugari, baina pixka bat arinagoak. Temperatura aldaketarik ez, eta hor jarraituko dute mendi puntetako elurrak. Ipar-mendebaldeko haizearekin giro desatsegina, batez ere kostaldean; baina ziertzo haize petralarekin giro eskasa barnealdean ere. Itsasoaren haserrea apaltzen, baina onetik ez du izango batere oraindik.

- Ciel dégagé
- Eclaircies
- Couvert
- Brouillard
- Variable
- Pluie
- Orage
- Vent
- Mer agitée
- Mer agitée
- Mer très agitée
- Grêle
- Neige
- Gelée